HAPO

PGOU

GETXO

GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA

III. FASEA HERRITARREN PARTE HARTZEA AURRERAKINAREN EDUKIARI BURUZ
JENDAURREKO ERAKUSTALDIA

# HAPOaren AURRERAKINAREN EGUNERATZEA-LABURPEN EXEKUTIBOA

EKAINA 2018

Getxo
bizi ezazu

## EDUKIA

1.1 Aurrerakinaren jendaurreko erakustaldia HAPOaren berrikuspenaren testuinguruan. .... 5

1.2 HAPOaren Aurrerakineko "Eguneratze-Laburpen Exekutibo" dokumentuaren helburua. .... 6

2. AURERAKINAREN PROPOSAMENAK ETA BERAIEN KONPARAKETA INDARREAN DAGOEN PLAN OROKORRAREKIN .... 7

2.1 Herriaren eredua: lurralde eta hiri-estrategia (G01) .... 7

2.2 Ingurumen naturala eta paisaia (G02) .... 10

2.3 Komunikabide sistema eta mugikortasuna (G03) .... 12

2.4 Esparru publikoa eta berdeguneak (G04) .... 15

2.5 Etxebizitza (G05) .... 17

2.6 Jarduera ekonomikoak (G06) .... 21

2.7 Ekipamenduak eta azpiegiturak (G07) .... 23

2.8 Ondarea (G08) .... 27

2.9 Ikuspegi inklusiboa (G09) .... 29

2.10 Iraunkortasuna eta klima aldaketa (G10) .... 31

3. I. ERANSKINA - ETXEBIZITZA (G05) .... 33

3.1 Aurrerakinaren hautabideetako etxebizitzen zenbaketa datuen eguneratzea .... 33

3.2 4/2016 Dekretua, LAAk aldatzen dituena bizitegi-zenbaketari dagokionez .... 35

3.2.1 Sarrera .... 35

3.2.2 Bizitegi-zenbaketaren kalkulua .... 35

3.3 LAAn berrikuspenaren dokumentuari hasierako onarpena ematen dion 2018ko otsailaren 20ko Agindua .... 41

3.3.1 Sarrera .... 41

3.3.2 Bizitegi-zenbaketaren kalkulua. .... 42

II. ERANSKINA – DOKUMENTAZIO GRAFIKOA .... 49

# SARRERA

## 1.1 Aurrerakinaren jendaurreko erakustaldia HAPOaren berrikuspenaren testuinguruan.

Indarrean dagoen Plan Orokorraren indarraldia 2001 urtean hasi zen. Ordutik hona 33 plan-barruko aldaketa izan ditu, 2013ko HAPOaren bertsio bateratuan jasoak, eta beraien xedapen asko garatu dira.

Bere planteamenduak eta antolaketa eredua berrikusteko komenigarritasunak eta, lehenik eta behin, bere edukia Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legera eta une horretatik etorritako lurralde antolaketa tresnetara (LZP, LAPk, LAAn) aldaketa egokitzeak bere berrikuspena aproposa zela adierazten zuten.

HAPO berriaren idazketak, oraingoz, ondokoak ekarri ditu: I. Fasea-Aldez Aurreko Azterketak (2013), II. Fasea-Aurre-aurrerakina (2013-2014) eta III. Fasea-Aurrerakina (2015)[1].

Horrekin batera, eta Herritarren Parte-Hartze Programan (2012) ezarritakoa jarraituz, parte-hartze publiko zabal bat garatu da, norainoko eta eduki ezberdinekin. Bertan, Lantaldeak (Getxoko hiritar eta elkarteek osatutako taldeak) berebiziko papera izan du.

Era berean, eta ingurumen gaiari dagokionez, bere garaiko legedia jarraituz izapideak hasi ziren[2], hasierako dokumentua gauzatuz (2014) eta ostean, eskuduna den ingurumen organoak (Eusko Jaurlaritzak) erreferentziako agiria emanez (2014-08-11). Aurrerakinaren dokumentu teknikoak badakar ere Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena (2015).

Une honetara helduta, 2015eko Aurrerakin dokumentu teknikoa jendaurrean jarri behar da. Bere edukia hautabide sorta baten oinarritzen da. Parte-hartze publikoari emandako garrantzia 4 hautabide (L hautabideak) Lantaldearen lanen emaitza direnean islatzen da; herritarren parte-hartzetik atera ziren ere beste bi proposamen: bata soilik Andra Marirako (Andra Mari Gure Lurra Elkarteak egina), eta bestea soilik lurzoru urbanizaezinari buruzkoa (Tokiko Ingurumen Foroak garatua); azkenik, teknikari taldeak beste 3 hautabide tekniko garatu zituen, bi bariaziorekin (T y T' hautabideak).

Jendaurreko erakustaldia (gutxienez bi hilabetekoa, 2/2006 Legearen arabera), hiritar zein erakundek "iradokizun eta hautabideak", ez lotesleak, aurkeztu ahal izateko da; bere emaitza ikusita, proiektuaren beharrezko bideragarritasun teknikotik, 2015eko Aurrerakinaren dokumentu teknikoaren eguneratzetik, etab., Udalak HAPO egiteko (hau da, ondoren datozen

---

[1] *Prozedura, izan ere, lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakora lotzen da (90. Artikulua).*

[2] *Planen eta Programen ingurumen ebaluazio estrategiko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; gaur egun Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari egokitzearen zain.*

hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpeneko faseak) oinarri izango diren "irizpide eta helburuak" hartuko ditu.

## 1.2 HAPOaren Aurrerakineko “Eguneratze-Laburpen Exekutibo” dokumentuaren helburua.

Getxoko HAPOaren Aurrerakineko “Eguneratze-Laburpen Exekutibo” dokumentuak helburu ezberdinak ditu.

Alde batetik, Aurrerakinaren dokumentu teknikoa laburbildu eta ulergarriago egiten du. Bere analisiari ekin zaio ikuspegi tekniko huts batetik baino bere edukia laburbilduz hiritarrentzako interesgarri izan daitezkeen hamar talde edo gaien araberako irizpide bat jarraituz (herriaren eredua, lurralde eta hiri-estrategia, ingurune-naturala, paisaia, komunikabide sistema-mugikortasuna, esparru publikoa-berdeguneak, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak-azpiegiturak, ondarea, ikuspegi inklusiboa eta iraunkortasuna-klima aldaketa). Indarrean dagoen legediaren arabera[3], indarrean dagoen plangintzarekin konparatzea ahalbideratzen du (hau da, 2001eko HAPO eta bere aldaketak edo orain arte izandako garapeneko planak).

Bestalde, Aurrerakin dokumentu teknikoaren zenbait atal eguneratzen ditu. Bera idatzi zenetik (2015eko amaiera) igarotako denboran hirigintzako eta sektoreko zenbait legedi atera da. Hori dela eta, arlo bakoitzean izan dezakeen eragina aztertu eta azaltzen da. Honi dagokionez, aurreratu daiteke azpimarragarria dela bizitegi-zenbaketaren gaia (2016 urteko LAA- Lurralde Antolamendu Artezpideen aldaketari egokitzea); eta ingurumen gaiari dagokionez (Aurrerakin dokumentu teknikoko ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenarekin batera ingurumeneko eguneratze-eranskin bat egiten da, bera hobeto ulertzeko: 2015eko Aurrerakinaren dokumentu teknikoarekiko uholde tarteak, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa, etab., eguneratzea ahalbideratzen du).

Horrez gain, “Eguneratze-Laburpen Exekutibo” dokumentuak orain dela gutxi garatutako jarduketa-eremuak jasotzen ditu. Horietan, aurreko parte-hartze prozesuetan (diagnosi eta aurre-aurrerakin faseak) ez HAPOak ezin izango du erabilera edo parametro aldaketa hautabiderik planteatu.

---

[3] *Lurzoru eta hiri-birgaitze Legearen testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko Legegintzako Errege Dekretuaren 25.3 artikulua eta y Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua.*

# 2. AURERAKINAREN PROPOSAMENAK ETA BERAIEN KONPARAKETA INDARREAN DAGOEN PLAN OROKORRAREKIN

## 2.1 Herriaren eredua: lurralde eta hiri-estrategia (G01)

Aurrerakin dokumentuan proposatutako hautabideak, beraien berezitasun eta ñabardurekin, ondoko oinarrizko hiru antolaketa-ereduetan laburbildu daitezke.

1. Gaur egungo hiri-lurzoruaren perimetroa mantentzea (L1 eta L2 hautabideak).
2. Urbanizatutako lurzoruaren hazkunde mugatua (L3, T1, T2 eta T2” hautabideak).
3. Urbanizatutako lurzoruaren handitzea (L4, T3 eta T3” hautabideak)

Esandakoa esanda ere, azaldutako ereduek, nahiz eta estrategia ezberdinei erantzun, zenbait helburu eta irizpide partekatzen dituzte:

- Bai jada existitzen den hiri-lurzoruaren kasuan, bai sailkatu daitekeen lurzoru urbanizagarriaren kasuan, ereduek lurzoruaren aprobetxamendu handiago eta eraginkorrago bat proposatzen dute. Ez dira jasangarritzat jotzen inola ere indarrean dagoen HAPOak zenbait eremutan zehazten dituen eraikigarritasunak, esateko lurzoru urbanizagarriko eremuetan, legez eskatutako gutxienekoak ez baitituzte betetzen.
- Hautabide guztiek proposatzen dute indarrean dagoen HAPOak egindako lurzoru okupazioa baino okupazio txikiago bat.
- Hiri-lurzoruaren birgaitze, eraberritze eta berdentsifikatze ekintzak sustatzen dituzte etxebizitza kopuruaren gehitzea ahalbideratuz, bai hiriko lur-zatiei eraikigarritasun berria emanez edota jada beste jarduera batzuetako (merkataritza lokalak, lonjak, etab.) gauzatua etxebizitza erabilerarako aprobetxatuz.
- Lurzoruaren erabilerak eta bere bateragarritasuna malgutzen dituen, erabileren nahasketa eta elkarbizitza ahalbideratzen duen araudi bat egituratzea proposatuz. Edonola ere, udalerriko eremu eta gune ezberdinen sektorializatze funtzionala saihestu nahi da.
- Gaur egungo hiri-lurzoruko zuzkidura, ekipamendu eta bereziki gune libreen estandarra gehitzen dute, bai zenbait hautabidetan lurzoru berriak lortzea proposatuz edota eraikitzeko erabiltzen ez diren eremu edo orubeak aprobetxatuz.

Beraien arteko ezberdintasunei dagokionez, hiru ereduek erakusten dituzte berezitasunak:

Horrela, lehenengo ereduak honako:

- Orokorrean, ez du kontutan hartzen lurzoru urbanizagarria sailkatzeko aukera.
- Izan ahal diren etxebizitzak gaur egungo hiri-lurzoruan kokatuko dira.

- Gaur egun hiri-lurzoruan etxebizitzak egiteko bete gabe dauden lurzoruak libratzea proposatzen du, beraietan gune libreak eta ekipamenduak kokatzeko, nahiz eta planteamendu hau aurrera eramatea zaila den bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegitik.

Bigarren ereduak:

- Gaur egungo hiri-lurzoruaren perimetroa mantentzea proposatzen du, tokian tokiko lurzoru urbanizagarriko guneak gehituz, 40/70 etxeb./ha. inguruko dentsitateak adieraziz, lurzoruaren legeak ezarritako gehieneko eraikigarritasun mugen barruan .
- HAPOean programatu beharreko lehentasunezko ekintza bezala zuzkidurako eta bete gabeko orubeen birgaitze eta eraikitze jarduketa zuzenak adierazten ditu, etxebizitza eskaintzeko lehen aukera bezala.
- Antzemandako eskaeratik gainerako etxebizitzarik ez eskaintzea nabarmentzen du. Zentzu honetan, azken urteotan izandako egoera demografikoaren jarraitasuna planteatzen du.
- Adierazten du antolaketa desiragarriena bezala jarduera (merkataritza, ostalaritza, hirugarren sektorea, I+D+I...) eta etxebizitzaren arteko elkarbizitza, beti ere funtzionalki bateragarri diren neurrian.
- Adoz izanik eredu funtzional mistoa (erabileren arteko elkarbizitza) dela planteamendu aproposa herria eraikitzeko, adierazten da ere jarduera ekonomikoetarako bere biziko eremu bat mugatzeko beharra, dinamismo ekonomikoa eta aukerak galdu ez izateko. Getxoren bizitegi-udalerri irudiaren aurkako kontrapisu bezala ikusten da.

Hirugarren ereduak:

- Lurzoru urbanizagarria sailkatzeko beharrizan estrategikoa ikusten dute, hori hiri-lurzoruaren berkalifikazioaren kalterik gabe.
- Horren arrazoia da azken urteotan udalerrian izandako joera demografikoa zuzentzea biztanleria erakartzeko planteamendu positibista eta proaktibo batekin eta, edonola ere, gaur egungo auzokide kopurua mantenduz.
- Aurreko ideia garatzeko behar da, beste proposamen batzuen artean, udalerrian babestutako etxebizitza programatzea eta bere egikaritza leheneratzea HAPOaren jarduketen programazioan.
- Zuzkidura publikoen estandarra hobetzea proposatzen da, batez ere udalerriko gune estrategikoetan (kostaldea, esateko) eta gune libre publikoak eskuratzea era horretan zenbait eremu eta lurzoruk duten baldintza natural berezien gordetzea bermatzeko eta horrez gain, Getxoko hiritar orok gozatu ahal izateko. Horrek eskatzen du hirigintzako baliabideak eratzea, horrela beraiek eskuratzeko altxor publikoa kargatu gabe.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

Errealitatea onartuz, bizitegi erabilera hartzen da nagusitzat, berari baldintzatuz gainerako erabileren garapena.

Hirigunea finkatu eta osatzen du, hiri ehuneko beste irla batzuk ere bai (Etxezuri, Comporte, Iturribarri, Zubilleta, Venancios, Aixerrota eta Ormaza) eta baita Andra Mariko beste gune txiki batzuk (5,8 $Km^2$, 500 ha.).

Getxoko etorkizuneko zabaltzeko erreserba bezala dentsitate baxuko (era horretan antolatu gabeko garapenetik gorde ahal izateko) lurzoru urbanizagarriko sektore handi batzuk mugatzen ditu, batez ere udalerri mugako ipar eta ekialdean (2,5 $Km^2$, 250 ha.) eta dentsitate ertain bat ematen die 1982ko Arau Subsidiarioetatik egikaritzen ari ziren planei.

Lurzoruaren gainerakoa (Korridorre lerrotik Leioa eta Berangorantz Bolueko mihitik eta Galeako harkaitz eta aldameneko kosta lerrora arte lurzoru urbanizaezin bezala sailkatzen da (3,6 $Km^2$, 360 ha.).

HAPOak 33 plan-barruko aldaketa izan ditu eta hiru akats aldaketa, 2013ko HAPOaren bertsio bateratuan jasotakoak, nahiz eta, funtsean, bere eredua mantentzen den.

## 2.2 Ingurumen naturala eta paisaia (G02)

Aurrerakinean planteatutako hautabide guztiek proposatzen dute gaur egun indarrean dagoen Planean urbanizatzera lotuta dagoen lurzorua errekuperatzea. Aldi berean, ukitzen gaituen lurralde plangintzaren onarpenak, ikuspegi sektorialen garapenak eta hirigintzako plangintzan antolatu eta ukitu daitezkeen elementuen eguneratzeak HAPO berrian lurzoru urbanizaezinerako proposameneko berrikuspen orokor bat dakar nahitaez.

Horrela ba, loteslea den lurralde plangintzara egokitzeko ikuspegitik, lurzoru urbanizaezinaren antolaketak ondokoak izan beharko ditu kontutan:

- Dokumentu horietan definitutako lurzoru urbanizaezinaren antolaketa kategoriak.
- Gainjarritako baldintzapenak, arreta berezia jarriz udalerriko azpiegitura berdea definitu eta ezartzen dutenei (igarobide ekologikoak, ibilguak eta bere ingurumen balioak direla eta babestutako eremuak).
- Erabileren sailkapena ingurune fisikoan.
- Lurralde plangintza ezberdinen ingurune fisikoaren antolaketaren antolaketa matrizetan oinarrizko izaerarekin ezarritako erabilera baimendu, onargarri eta debekatuen araubidea.

Aurrerakinean planteatutako hautabide ezberdinen arteko amankomuneko edo parekatu daitezkeen helburuak ondoko hauek dira:

- Natura kapitala eta biodibertsitatea mantentzea eta indarrean dagoen Plan Orokorrarekiko aztarna ekologikoa gutxitzea.
- Udalerriko natura, ingurumen balioak eta baliabide naturalen babesa ezartzea.
- Ingurumen naturala errekuperatu eta gorde.
- Nekazaritza sektorea bultzatu.
- Azkorri inguruan kostaldeko parke izateko lurzoru publikoa eskuratu (Bilbo Meropolitarreko Lurralde Zatiko Planak proposatutako Plentziatik Getxorainoko kostaldeko gune libre eta ekipamenduen tartea).

Aurrerakinarekin batera datorren ingurumen dokumentazioan HAPOean kontutan hartzeko ondoko ikuspegiak aipatzen dira, beraietatik batzuk orain dela gutxi ateratakoak:

- Gorde beharreko guneei dagokionez, EAEko natura esparru nabarmenen katalogo irekian sartuta dagoen Punta Galea-Barrika aipatzen da, lehentasuneko intereseko habitatez gain.
- Bolue bailara eta Gorrondatxeko idoiko istiltzeak kontutan hartu beharko ditu HAPOak, gorde beharreko hezegune bezala.
- Gobela ibaiko uholde arriskuko guneei dagokionez, URA Euskal Uraren Agentziak bere uholde arrisku mailaren arabera ezarritako lurzoruaren erabilera irizpideei egokitu beharko da. Hain zuzen, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa

behin betiko onartzen duen azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuan datorren antolaketa jarraitu beharko da.

- Gainjarritako baldintzapen bezala hartu beharko dira erkidegoko intereseko natura habitatak eta udalerria zeharkatzen duen igarobide ekologikoa.
- Plan Orokorrean sartu beharko dira Kantauri Ekialdeko Hidrografi Mugaketako 2015-2021 Plan Hidrologikoan eta berari dagokion uhalde arriskua kudeatzeko planean esaten dena.
- Gobernu-kontseiluak 2015eko ekainean onartutako Klima Aldaketaren aurkako Euskal Estrategia 2050 (KAEE).
- 2017ko abenduaren 21eko Aginduan jasotako kutsatuta izan daitezkeen lurzoruen inbentarioa eguneratu eta arautzea.
- HAPOeko araudia eta proposatu beharreko ekintzak 2016 urtean egindako Getxoko itsas-fatxadan Arrigunagatik Punta Begoñarako Paisaiaren Ekintza Planarekin (PEP) koordinatzea.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

Herriko bizitegirako garapen maila altuagatik dago baldintzatuta ingurune naturala. Lurzoru urbanizaezin sailkapenarekin zenbait guneren landa izaera gorde nahi da, batez ere korridorearen beste aldean Leioa eta Berangorantz, Bolueren adarraren gainean daudenak.

Ondoko antolaketa-kategoriak ezartzen dira:

- *Preserbazio zorrotzeko aldea*
    - *Portu Zaharreko labarra (P-1 aldea)*
    - *La Galeako labarra (P-2 aldea)*
    - *Bolueko hezegunea (P-3 aldea)*
- *Kontserbazio aktiboko aldeak*
    - *Arrigunaga hondartza (C-1)*
    - *Azkorri-Gorrondatxe hondartza (C-2)*
- *Birsorkuntza eta hobekuntza aldeak*
    - *Igeretxe-Portu Zaharra (M1)*
    - *Aixerrota (M2)*
    - *Punta Galea-Azkorri (M3)*
- *Sortuko diren baso erabilerako aldeak*
    - *Bolue harana (F1)*
- *Nekazaritzako aldeak*
    - *Bolue harana (A1)*
- *Azaleko urak babesteko aldeak*
    - *Ibai ibilguen eta bere babes guneen antolaketa*

## 2.3 Komunikabide sistema eta mugikortasuna (G03)

Aurrerakinak ez du funtsean aldatzen bide, trenbide eta portu mugikortasun sistema.

Planteamendu esanguratsuenak oinezko-bizikletazko mugikortasunaren inguruan ematen dira. adin tarte guztietan bere erabilera bultzatzeko estrategia orokor bat planteatzen da. Estrategia hau elkar trukaketak ahalbideratzen datza eta puntu batzuk sendotzean bide moten arabera edo oinezkoen sarea bidegorriekin eta malda handiko guneetan, esateko Portu Zaharra, Urkixo Baso, Alango edo Bidezabal, igogailu edo eskailera mekanikoekin une batzuetan lotzea (Portu Zaharrerako, Aurrerakinaren dokumentu teknikoak igogailu bat jartzea planteatzen du; izan ere, igogailu hori egina dago  jada).

Era xehatu agoan, bizikletentzako bide edo bidegorriei dagokionez, zenbait berezitasun edo ekiteko irizpide hartuko dira kontutan:

- Zenbait ibilbide, igotzeko zailtasunagatik, bakarrik jaisteko izango dira; gertakizun honek mota ezberdinen alde apustu egiteko balio izango du (arazo bat ez bezala, apropostzat jotzen da norabideen bereizketa bat egitea).
- Beste ibilbide batzuetan, beraien estutasuna edo bateragarritasun maila direla eta, Aurrerakinak oinezkoentzako sarearekin partekatzea proposatzen du.
- Azkenik, ibilgailuarekin elkarbizitza motorezko ibilgailuen abiadura motelduz konpondu nahi da.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

**Ibilgailuentzako bideak**

Hiru ardatz longitudinaletan oinarritzen da (I-H norabidea):

- *Zugazarte – Alango luzapena - Euskalherria-Telletxe – Angel etorbidea.*
- *Errekagane - Negubide - Chopos - Ollaretxe - Maidagan - Estrada de Ormaza.*
- *Lamiako - Artaza - Uribe-Kosta korridorea.*

Eta bost ardatz transbertsal eskualdearekin lotxen duten bideak direnak:

- *Eduardo Coste.*
- *Avanzada.*
- *Euskalherria - Chopos – Korridorea.*
- *Salsidu - Bolue - Euskalherria.*
- *Andra Mari - Bidezabal.*

Planaren berrikuntza Andra Mariko lurzoru urbanizagarriaren hedapenarekin zegoen lotuta.

- *Maidagan luzatzeko ardatza, Zientoetxeko estradaren bide paralelo baten bidez.*
- *Ardatz transbertsal bat parke linealaren ondoan; Plentziarako bidean hasita Martiturriko estradatik hurbil doa, Dilizko estradarekin lotuz Gorrondatxera arte.*
- *Zeharbide perimetrala Maidagan bukaeratik sektore berria zeharkatzen duena Golfeko Clubaren atzetik Uribe-Kosta korridoreko lotura batekin elkartu ate Sopelako udalerri mugan Azkorri inguruan.*

**Aparkalekuak**

Auzokideentzako 3 lurrazpiko aparkaleku eraikitzea aurreikusten da:

- *Puente Colgante plazan*
- *Las Mercedes*
- *Santa Eugenia plaza eta Sarrikobaso*

**Metroa**

Ondoko geltokietan oinarritzen da (Bilbao-Plentzia norabidean):

- *Areeta: Ibaigane kale azpian lurperatua, plaza publiko erabilerarako aurreko instalazioak libratuz.*
- *Gobela: ekintza berriak lehen aipatutako guneen arteko oinezkoentzako ibilbide bat egitea ahalbideratzen du, trenbidearen azpitik.*
- *Neguri: funtsezko aldaketarik gabe.*
- *Aiboa: instalazioak aldatzen dira soilik orduko geltokia Metroaren beharretara egokitzeko.*
- *Algorta: bera lurperatzeak sarbide hobe bat ahalbideratzen du alboko kaleetatik eta hiriko plaza bat lortzea Algortako gune esanguratsu baten.*
- *Bidezabal: geltoki berri bat egiten da Getxoko Andra Marikoa ordezkatzeko.*
- *Ibarbengoa: geltoki berri bat proposatzen da Martiturri inguruan sektore horren enpresentzako eremuaren garapenerako funtsezko elementu izateko asmoarekin, eta baita ere, lurzoru urbanizagarrian proposatzen diren etxebizitza eremu berriei zerbitzu emateko. Geltoki honekin batera aparkaleku intermodal bat eraikitzeko asmoa dago.*

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

**Oinezkoentzako sarea**

Planean aurreikusitako oinezkoentzako ibilbide nagusiak hauek dira:

- *Kostaldea zeharkatzeko ibilbidea: Tomás Olabarri moilan hasita Areeta eta Arriluzekoak zeharkatzen ditu eta Usategui, Aixerrota eta Galeako kornisa guztia zeharkatzen du.*
- *Ajedrez plazatik hasita eta Gobelaren ondotik Romo, Etxezuri, Bolueko hezegunea eta Fadura zeharkatzen duen ibilbidea ibai-parke berrira arte helduz. Hemendik, eta gune tertziarioa zeharkatu ondoren, parke-linealetik igotzen hasten Martiturri - Díliz ardatzen zehar geri bi bidetan banatuz: adar bat Punta Galeako harkaitzetara arte, eta bestea Aizkorri hondartzara arte.*
- *Zeharkako konexioak: sare hau mailatuz, oinezkoentzako kanpoko bi ardatz nagusien artean, ekipamendu nagusiak (Fadura, Kirol Portua, Golfa, etab.) eta gune libre handiak (ibai-parkea, parke lineala, harkaitzak, hondartzak, etab.) elkarrekin lotuz.*

Jasotzen da ere auzoen arteko oinezkoentzako guneak eratzea:

- *Kale Nagusia oinezkoentzako gehiago erabiltzea, errepidearen sekzioa gutxituz espaloiak handitzeko eta era horretan Puente Colgante-a eta Ajedrez-Geltoki plaza lotuz; azken hau oinezkoentzako bilakatuko litzateke ere, auzoko gizarte-erdigune bilakatuz.*
- *Sta. Ana plaza oinezkoentzako bilakatu eta baita bertara irteteen diren kaleak etxarte baten azaleran.*
- *Azaleran bi mailatako plaza bat eratzea Algortan bere lurperatzearen ondoren trenbideak husten duen azaleran; Torrene eta Zabala kaleak oinezkoentzako bilakatuz, Basagoiti etorbidearekin lotura egingo da.*
- *Orduko Usategi parkea handitu.*
- *Zenbait kale tarte Erromon.*

## 2.4 Esparru publikoa eta berdeguneak (G04)

Aurrerakin dokumentuan proposatutako hautabideak hiri-lurzoruko ekipamendu maila, bai publiko, bai pribatu, hobetu nahi dute. Horrela, hautabide guztientzat plaza/parke motako gune libreen sistema orokorrak lortzea proposatzen da ondoko guneetan: Abasota begiratokiko luzapenaren parte bat (5g), San Joseren parkearen parte bat (16b), Urkijo Baso parkearen parte txiki bat (19e) eta Vilamonte plazan (L1 hautabidean, gainera, ondokoak lortzea proposatzen da: 10 lur-zati Aixerrotan, lur-zati 1 Goñi-Barrin, lur-zati 1 Maidaganen eta 2 lur-zati Kortiñen).

Nahiz eta L1 y L2 hautabideek, gainera, hiri-lurzoruan dauden gune libreak handitu nahi dituzte, gaur egungo HAPOeko hiri-lurzoruko egikaritu gabeko egikaritzapen-unitateak eta orubeak (batez ere aisialdiko) Gune Libreen Sistema Orokor bilakatuz. Esan behar da hau bideragarritasun ekonomiko konplexua daukan gaia dela.

L1 hautabidearen kasuan, jarduketa integratuen barruan, Martikoena, Neguri (lehengo 11.1), Alango (lehengo 16.1), Arkotxa (lehengo 16.3), Iturribarri (lehengo 24.2), Trinitarios (lehengo 27.1.2) San Nikolas (lehengo 27.5), Maidagan (lehengo 31.1), Katea (lehengo 31.3), Zubilleta (lehengo 36.1), Venancios (lehengo 37.1), Ormaza (lehengo 42.1), eta Mimenaga unitateak destsaturatu beharreko egikaritzapen-unitate bezala adierazten dira. Eta kudeatutako baina bete gabeko egikaritzapen-unitate bezala ondoko hauek: U.E 21.1, U.E. 27.3, U.E 27.4, U.E. 26.2 eta U.E. 42.2

L2 hautabidean, ordea, Martikoena, Portu Zaharra, Trinitarios y Katea unitateak dira (azken hirurak lehengo 27.5, 27.1.2. eta 31.3 unitateak) gune libre bezala adierazten direnak, kokatzen diren guneen saturazio eta gune libreen faltagatik. Hauek ahal dira, adibidez, Iturribarrira atxeki (eta lurzoruak lagapen publiko bezala lortu). L2 hautabideko jarduketa integratuetako gainerako unitateak berrikusi beharreko bizitegirako egikaritzapen-unitate bezala markatzen dira: Neguri (lehengo 11.1), Alango (lehengo 16.1), Arkotxa (lehengo 16.3), Iturribarri (lehengo 24.2), Maidagan (lehengo 31.1), Zubilleta (lehengo 36.1), Venancios (lehengo 37.1) eta Ormaza (lehengo 42.1)

Portu Zaharrari dagokionez, hautabide guztiek T2 hautabideak izan ezik (eta bere T2' bariantea), kalifikatzen dituzte gune libreen sistema orokor bezala Portu Zaharreko lurzoruak.

Gaur egun, L1 hautabidearen kasuan, hau ez da posible izango ondoko eremuetan:

- U.A.55. Kortiñe: RU-1-1, RU-1-2 (Portu Zaharra SO)
- P-21-II, P-21-III (Portu Zaharra SO) U.A.50. Aixerrotakoa
- U.E. 27.1.2 (zati bat)
- U.E. 21.1
- U.E 26.2
- U.E. 27.3 (zati bat)
- UE. 42.2 (zati bat)

L1 hautabidearentzat ere planteamendua ez da posible izango ondoko eremu honetan:

- U.E. 27.1.2 (zati bat)

Lurzoru urbanizaezinean proposatzen diren gune libreen sistema orokorrei dagokionez, gogoratu behar da L1 hautabidean ez dela mota horretako lurzorurik sailkatzen eta L2 hautabidean jarduera ekonomikoetarako sektore bat mugatzen da Mariturrin, baina ez da kalifikatzen lurzorurik ez etxebizitzarako ez sistema orokorretarako. Beraz, hautabide bi hauetan ez da gune libreen sistema orokorrik aurreikusten lurzoru urbanizagarrian. Gainerako hautabideetan, gune libreen sistema orokorren azalera Mariturrin proposatutako jarduera ekonomikoen sektorera atxikitakoak dira. Bere azalera sektore horretarako egiten den proposamenaren araberakoa izango da.

T2 eta T3 hautabide teknikoetan (eta bere T2' y T3' barianteetan) lortu beharreko gune libreen sistema orokorren zati bat Gobela ibaiaren buruko uholde arriskuko guneetan proposatu da, naturaren gozamena eta bere balio naturalen mantentzea bateratuz, eta era horretan gune libre horren erabilera iraunkor bat bilatuz. T2 eta T3 hautabide tekniko horietan (eta bere T2' y T3' barianteetan) bizitegirako lurzoru urbanizagarriko sektoreetan legez exijigarri diren baino gune libreen sistema orokorren azalera handiagoak ezarri dira: 8 m$^2$ T2 hautabidean eta 11 m$^2$ T3 hautabidean, bizitegirako 25 m$^2$ (s) bakoitzeko. Lantaldearen L4 hautabidean, gainera, Azkorri inguruan (Bilbo Metropolitarreko Lurralde Zatiko Planak proposatua) eta Paellen zelaiaren inguruan 45Ha-ko kostaldeko parke bat proposatzen da lortzea gune libreen sistema orokor bezala.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

Kostalde aurrea bultzatzen zen elementu nagusi bezala, Gobela ibaiaren ertzekin batera, udalerria iparraldetik hegoaldera etenik gabe zeharkatu ahal izateko oinezkoentzako bide sare handi baten barruan.

Barne aldean, Bolueko hezegunetik hasita, igarobide berde bat eratzen zen Uribe-Kosta korridorearen paralelo ibai-parkera heldu arte. Bertatik tarte bat irteten da harkaitzetaraino heltzen dena Getxoko Andra Mariko pentoka nagusien gainean kokatutako bi parkeekin lotuz.

Gune libreen sistema orokor hau eratzen duten elementu ezaugarrienak hauek dira:

- *Txurrua nasa eta Areetako kaiako ibilbidea.*
- *Zugazarte etorbideko tarte berdea eta bere jarraipena Arriluzeko lorategietan.*
- *Areetako geltokiko eta Erromoko Gobelaurre parkeko enparantzak.*
- *Maria Kristinako parkea eta bere jarraipena Usategin eta San Joseren parkea Zugazarten.*
- *San Ignacio parkea, Konporteko tarte berdea eta Arenalen plaza Negurin.*
- *Aixerrotatik hasita Sopelako udalerri mugara arte heltzen den kosta tartea.*
- *Martiturri-Diliz ardatzeko bidean oinarrituta bizitegi gune berria zeharkatzen duen Andra Mariko parke berria bi bukaerako irteera dituena, bata Kortiñen eta bestea Gorrondatxe hondartzan.*
- *Ibai-parkea. Fadura, Venancios eta Zubilleta Industrial-ek mugatutako gunean Gobelaren ibilguaren ondoko lurzoruen apropostasun eskasa dela eta, ibai-parke bat eratzea proposatzen zen, 13 Ha azalera ingurukoa, ibaian urlo txikiak eratuz.*
- *Bolueko hezegunea, naturaren mantentzearen ikuspegitik oso interesgarria den ekosistema baten defentsarako erreserba bezala eratzen dena.*
- *Ibai-parkean hasita Bolueko hezegunearekin lotzen den korridorearekin lotutako tarte berdea.*

125,89 Ha izanik guztira, 15,7 m$^2$/biztanleko ratio bat ateratzen zen (hau da, 3-tik biderkatuz legeak eskatutako 5m$^2$/hab estandarra).

Aurrekoari gehitu behar zaizkio tokiko sistemak, guztira 51,64 Ha-ko azalera dutenak, hori lurzoru urbanizagarrian gorde beharreko tokiko sistemak kontatu gabe.

## 2.5 Etxebizitza (G05)

Aurrerakinean deskribatutako antolaketa hautabide bakoitzak garatu eta zehazten dute HAPOean programatu beharreko etxebizitza kopuru bat eta beraiek kokatzeko eremuak. Honi buruz, eransten den taulak hautabide bakoitzean aurreikusitako etxebizitza berrien eskaintza adierazten du (eguneratua). Bere garapen xehatu bat dator dokumentu honen 1. Eranskinean. Bestalde, dokumentu honi lotutako planoetan (2. Eranskina) marrazten da non gauzatzen diren bizitegi aurreikuspen hauek.

| ETXEBIZITZA BERRIEN ESKAINTZA. PGOU GETXOKO HAPOaren AURRERAKINA (2018 URTEAN EGUNERATUA) | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *Eremuak* | | HAUTABIDEAK | | | | | | | | | | | | | |
| | | L1 | | L2 | | L3 | | L4 | | T1 | | T2 – T2” | | T3 – T3” | |
| | | EL | BE | EL | BE | EL | BE | EL | BE | EL | BE | EL | BE | EL | BE |
| Hiri-lurzorua | Etxebizitzak jada garatutako hiri-lurzoruko eremuetan | 0 | 0 | 118 | 28 | 118 | 28 | 118 | 28 | 118 | 28 | 118 | 28 | 118 | 28 |
| | Etxebizitzak berrikusi beharreko jarduketa integratuetan | 0 | 0 | 870 | 543 | 946 | 905 | 946 | 905 | 946 | 905 | 946 | 905 | 946 | 905 |
| Lurzoru urbanizagarria | Etxebizitzak bizitegirako sektore berrietan | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1.250 | 3.750 | 0 | 0 | 277 | 974 | 495 | 1.740 |
| | Etxebizitzak JE-tako sektore berrietan | 0 | 0 | 0 | 0 | 50 | 150 | 30 | 78 | 16 | 56 | 23 | 85 | 23 | 85 |
| | Etxebizitza berrien eskaintza motaren arabera (2018ko eguneratzea) | 0 | 0 | **988** | **571** | **1.114** | **1.083** | **2.344** | **4.761** | **1.080** | **989** | **1.364** | **1.992** | **1.582** | **2.758** |
| | **Etxebizitza berrien eskaintza** (2018ko eguneratzea) | **0** | | **1.559** | | **2.197** | | **7.105** | | **2.069** | | **3.356** | | **4.340** | |
| | *Etxebizitza berrien eskaintza (2015eko Aurrerakin dokumentu teknikoa)* | *0* | | *1.844* | | *2.515* | | *7.423* | | *2.387* | | *3.674* | | *4.658* | |

Hautabide bakoitzak irizpide ezberdinak erabiltzen ditu motibazio eta justifikazio gisa. Beraien ideia nagusiak era honetan laburbildu daitezke:

L1 hautabidea:

- Proposamenak “burbuila inmobiliarioak” saihestu nahi ditu, eskaintza eskaera errealera doituz, espekulazioa gutxituz.
- Gaur egungo higiezin parkearen aukerak maximizatzen ditu hutsik dauden etxebizitza guztiak eskuragarri jarriz eta atikoak etxebizitza bihurtuz eta baserriak edo erabilera gabeko etxeak birgaituz, garapen berririk aurreikusi gabe hiri-lurzoruan.
- Udal diru-laguntzekin etxebizitzak birgaitzea eta gizarte-alokairuaren eta alokairuko etxebizitza babestuen sustatzea adierazten ditu Planaren lehentasuneko ekintza bezala etxebizitza politika arloan.

L2 hautabidea:

- Programatu beharreko etxebizitzen zenbaketan etxebizitzen banaketa, etxebizitza hutsak, atiko eta lokalak aprobetxatzea eta horrelakoak hartu behar dira kontuan, eraikuntza berriko beharrak gutxituz, eta horrek izan behar dira HAPOean programatu beharreko ekintzak.
- Hautabidearen helburua hiri-lurzorua betetzea da eta lurzoru urbanizagarria ez sailkatzea.
- Azkorri ingurua ez du ukitzen hautabideak.

L3 hautabidea:

- Proposamenak indarreko HAPOn oraindik kudeatu gabe dauden egikaritzapen-unitateak garatzea hautatzen du eta lurzoru urbanizagarririk ez sailkatzea.
- Etxebizitza kopuruaren zenbaketak ez du bere gain hartu behar lokalak etxebizitza bilakatzea, baina bai hiri-lurzoruan etxebizitza eratzeko gainerako egoerak (banaketak, atikoak aprobetxatzea, etab .).
- Hautabide honek onartzen du Andra Mari gunearen handitze bat, bere eraikigarritasuna legezko gutxienera igoz, hau da 0,40 m²s/m2l, Andra Mari Gure Lurra elkarteen ordezkariek egindako bozka partikularraren arabera.

L4 hautabidea:

- Bere zenbaketa udalerrian etxebizitza eskaintzeko beharrean oinarritzen da, bai hiri-lurzorua bai lurzoru urbanizagarria sailkatuz.
- Proposamenak gaur egungo hiri-lurzoruko jarduketak betetzen ditu baina ez du adierazten dentsifikatzea hiri-lurzoruko lehentasuneko irizpide bezala. Hori ez bezala, harrotze ekintzen beharra planteatzen du zuzkidura eta gune libreak lortu ahal izateko.
- Egin daitezkeen ekintza bezala izendatzen ditu Ibarbengoa geltoki berriko eremua, Arteaga antzinako sektorearen ingurua eta Sopela eta Berangoko mugako lurzoruak.

T1 hautabidea:

- Hautabide hau planteatzen da bizitegirako eskaintza bezala planteatuz soilik hiri-lurzoru finkatu gabean kokatu daitekeena. Era berean, hiri-lurzoruko bizitegi eskaintza bezala hartzen dira jada plangintza egikarituz kudeatutako unitateetan kokatzen diren orubeak.
- Martiturri inguruan jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore bat eratzea proposatzen du. Sektore horretan etxebizitza zuzkidura txiki bat aurreikusten da, 72 etxebizitzakoa, sektoreko langile batzuei etxebizitzaz hornitzeko.

T2 y T2" hautabidea:

- Hautabide honek T1 hautabidean egindako proposamena mantentzen du hiri-lurzoruarentzat. Lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoetako eta bizitegi hutseko sektore berriak mugatzen dira etxebizitzak zenbatzeko irizpide bezala Lurralde Antolamendu Artezpideen aldaketarako espedientean 2014ko ekainean hasieran onartutako biztanleriaren bilakaera hartuz.
- Hautabide honek Martiturri inguruan jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore bat eratzea proposatzen du, berari erantsitako bizitegirako eremu txiki bat aurreikusiz ere.
- T2 eta T2' hautabideen arteko ezberdintasuna etorkizuneko bizitegirako sektoreen kokapen espazialean datza. Hori eransten den dokumentazio grafikoan ikus daiteke.

T3 y T3" hautabidea:

- Hautabide hauek egiteko elementuak T2 eta T2" hautabideen berdinak dira. Ezberdintasuna etxebizitzak zenbatzeko hartutako egoera demografikoan dago. Kasu honetan 2014 urteko biztanleria hartzen da erreferentzia gisa.
- T3 eta T3' hautabideen arteko ezberdintasuna etorkizuneko bizitegirako sektoreen kokapen espazialean datza. Hori eransten den dokumentazio grafikoan ikus daiteke.

Aurrerakin dokumentua egin ondoren, 2016ko otsailaren 8an argitaratu zen Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Artezpideak behin betiko onartzen zituen Dekretuaren aldaketarako urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretua, etxebizitzen zenbaketari buruzkoa.

Esandako zenbaketa metodologia jarraituz, dokumentu honen I. Eranskinean jasotzen dena, eta onartzen den egoeraren arabera, ateratzen den gehieneko etxebizitza zenbaketa ondoko hau da:

- A. Berton bizi den biztanleriaren aldaketatik datorren egoera: 3.328 etxebizitza.
- B. Gaur egungo biztanleria mantentzetik datorren egoera: 4.765 etxebizitza.
- C. Egoera orokorra (hasierako etxebizitza parkearen %10): 3.334 etxebizitza.

Kuantifikazio honetatik lortutako parametroek Aurrerakineko hautabideak baldintzatzen dituzte HAPOak aurreikusteko gehieneko etxebizitza kopuruari dagokionez.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

Errealitatea onartuz, etxebizitza erabilera hartzen da nagusitzat, berari lotuz gainerako erabileren garapena.

- *Hiri-lurzorua. Arau Subsidiarioetan jada horrela esandako plangintza eremuak hartzen ditu, eta horrez gain hartzen ditu ere hiri-lurzoru barruan irla txiki bezala geratu diren lurzoru urbanizagarriko eremuak (Etxezuri, Konporte, Iturribarri, Zubilleta, Venancios, Aixerrota eta Ormaza)*

Baita ere une horretan lurzoru urbanizaezinean kokatuko Andra Mariko gune txikiak, bere finkapen maila eta horrelakotzat hartu behar direnak.

Planak hiriguneak finkatu nahi ditu bere mugaketari dagokionez, baina hektareako etxebizitza dentsitatea gutxituz zenbait kasutan era horretan hiri-lurzoruko zenbait gunetan dagoen nolabaiteko dentsitate altua arinduz.

Hiri-lurzorua betetzeak 3.200 etxebizitza berri inguru eraikitzea suposatuko luke.

Dentsitateen banaketari dagokionez, esan daiteke hirigunea orokorrean dentsitate ertainekoa dela (50-250 Biz/Ha) bi gune dentsoago kenduta Areeta-Erromo eta Algorta 2-n, non dentsitatea altua den (250-650 Biz/Ha).

- *Lurzoru urbanizagarria. Getxoko etorkizuneko hazkunderako gordetako lurzorua da. Arau Subsidiarioetako ereduak nolabait trinko ziren lurzoruetara mugatzen zuen eredu hau. Andra Mariren kasuan honek lotura gabeko garapenak eragin ditu. Landa eremuko zati handi bat urbanizatzeko proposamenak jarduketan unitate bat lortzeko asmoa dauka. Onartutako Plan Partzialak unitate honetara gehitzen dira.*

Lurzoru urbanizagarrian etxebizitzara zuzentzen den lurzoruan bi dentsitate mota ikus ditzakegu. Alde batetik dentsitate ertaineko lurzoru bezala jartzen da egikaritzan zeuden plan partzialetakoa eta Zientoetxe kalearen paralelo doan bizitegiko ardatza. Dentsitate baxuko bezala finkatzen da lurzoru urbanizagarriaren gainerakoa.

Eraikigarritasuna mugatuz hektareako etxebizitza dentsitate baxu bat lortu nahi da eta era horretan interes handiko eremu baten hiri-egitura aldetik hazkunde desantolatu batez gorde.

- *Lurzoru urbanizaezina. Lurzoru mota honekin mantendu nahi da zenbait guneetako landa izaera, batez ere korridorearen beste aldean Leioa eta Berangorantz eta Bolueko adarrean .*

Sailkapen honen barruan hartzen dira Galeako harkaitzak eta bere ondoko lurzoru tartea, beraiek eraikuntza gabe uzteko eta ekologi intereseko gune bezala mantentzeko.

## 2.6 Jarduera ekonomikoak (G06)

Aurrerakinaren proposamena jarduera ekonomikoen arloan beraien sustapen eta garapenerako estrategia sorta bat ezartzean eta jarduera horiek hartu ditzaketen zenbait eremu zehaztean datza (dokumentazio grafikoan identifikatu daitezke). Ikuspegi biak aldatzen doaz emandako hautabideen arabera.

L1 hautabidea (ez du handitze azalera berririk aurreikusten):

- Getxoko potentzial turistiko eta kulturala behar den bezala aprobetxatzea eta horri etekin ateratzea proposatzen du.
- Merkataritza lokal guztiak jarduera ekonomikoetarako zenbatu, sustatu eta erabiltzeko beharra adierazten du. Horrek ahalbideratuko luke tokiko giro eta idiosinkrasia bat, era horretan bultzatuz hiriko segurtasuna.
- Gaur egun lurzoru urbanizagarri bezala sailkatutako guneak landako bilakatu. Nahi da landa jarduerak herriaren garapen ekonomikoaren bultzatzaile izatea ere, eta horrek laguntzea baserriak birgaitzera, etab.

L2 hautabidea (9,25 hektarea lurzoru urbanizagarri berria eta berrerabili ahal daitezkeen lurzoruen artean):

- Egoki eta beharrezkotzat jotzen du udalerrian jarduera ekonomikoak kokatzea. Sustapen publikoa hautatzen du erabilera hauetarako eremu berriak garatzeko era bezala.
- Jarduera ekonomiko berriak kokatzeko azpiegitura eta lotura guneetatik hurbil dauden eremuak, esate baterako metro geltokiak edo errepide azpiegituren loturak (Martiturri ingurua, 7,8 hektarearekin).
- Oso garrantzitsutzat jotzen du udalerrian merkataritza guneak kokatzea saihestea.
- Mimenagan kokatutako lehengo 48.1 jarduketa integratuan jarduketa integratu bat mugatzea proposatzen du (1,45 hektarea).

L3 hautabidea (lurzoru urbanizagarriko 8-10 hektarea):

- Lehentasunezkotzat jotzen du Getxoko ekoizpen eta ekonomi-enpresa erabilera bultzatzea.
- Udalerriko ondare historikoa lehen mailako elementu bezala adierazten du jarduera ekonomikoa bultzatu dezaketen sinergiak eratzeko: Portu Zaharra, Andra Mari eliza, etab.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri berriko 8-10 hektarea garatzea proposatzen du. Horretarako gune aproposenentzat Martiturri jotzen dute (6 hektarea marrazten dira), Berango ondoan, bertan komunikazio azpiegiturak hurbil baitaude. Sustapen publikoa adierazten du bere garapenerako sistema aproposen bezala.

L4 hautabidea (lurzoru urbanizagarriko 13 hektarea berri):

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri berriko 13 hektarea garatzea proposatzen du Martiturri inguruan.

T1 hautabidea (lurzoru urbanizagarriko 7,86 hektarea berri):

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko sektore bat eratzea proposatzen du Martiturri inguruan 7,86 hektarea azalerarekin.
- Aukera bezala, planteatzen du ere jardueretarako sektore berri bat mugatzea Zubilleta inguruan, orain daukan bizitegi erabileraren alternatiba bezala.

T2, T2", T3 eta T3" hautabideak: (lurzoru urbanizagarriko 10,9 hektarea berri)

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri berriko 10,9 hektareako sektore bat garatze proposatzen du Martiturri inguruan.

Orokorrean hautabide guztietan:

- Proposatzen da bai finkatutako hiria, bai ekintza berriak hiri-bilbea diseinatzea konplexitate funtzionalaren ikuspegitik, ekonomi erabilerak bizitegi erabilerarekin batera antolatuz.
- Udalerriarentzat apropostzat jotzen diren jarduera ekonomikoak tertziarioak dira.
- Ez da proposatzen industriarako lurzoru berririk mugatzea, aldez aurretik dagoena mantenduz.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

Jarduera ekonomikoetareko bere biziko lurzoru bezala, aldez aurretik zeudenei ondoko proposamenak gehitu zitzaizkien:

- *Erabilera tertziario eta merkataritza erabilerarako gune bat trenbide eta Getxo-Plentzia errepidearen ondoan erakusleiho zabalak behar dituzten lokal handientzat (kontzesionarioak, etab.).*
- *1,3 Ha. azalera inguruko lurzoru industrial bat Getxo eta Berango arteko mugan Mimenaga sektorean, bide ezberdinen artean, Berangon Gobela ibaiaren ondoan proposatutako kaleei jarraipena emateko.*

Hiriko jarduera ekonomikoak (gehien bat, zerbitzuak) etxebizitza erabileraren bateragarri bezala arautzen ziren finkatutako guneetan eta garapen berrietan.

## 2.7 Ekipamenduak eta azpiegiturak (G07)

Aurrerakinaren proposamena ekipamendu eta azpiegiturei dagokionez bere zenbaketa garatzen du funtsean gaur egun kalifikazio horrekin dagoen lurzoruari eta etorkizuneko aukerako kokapenei dagokionez. Plan Orokorrak helduko dio gai honi udalerri oso eta auzo mailako ikuspegien eta beharrezkoak diren ekipamendu berrien beharren arabera.

Hautabide guztietan adierazten dira zenbait ekipamendu mistoko sistema orokor hiri-lurzoru finkatuaren barruan.

Hala ere, Aurrerakineko hautabideak komentatu beharreko zenbait gaiei heltzen diote:

L1 eta L2 hautabideak:

- Egin gabe dauden hiri-lurzoruko unitate eta eremuak ez eraikitzea proposatzen du eta beraiek eskuratzea zuzkidura lurzoru bezala desjabetzearen bitartez.
- L1 eta L2 hautabideek proposatzen dute Erromo eta Martikoena unitate berriak ekipamendura zuzentzea (gune libreekin konbinatua), beraien gaur egungo bizitegi erabilera alde batera utziz.
- L1 hautabideak, hain zuzen, pertsona nagusientzako apartamentuak bultzatzea proposatzen du (bereziki, desgaituentzat); L2 hautabideak, ordea, zuzkidurako bizigune ugari proposatzen ditu jarduketa integratuetan.

- Gainerako hautabideek, bitartean, hau da L2, L3, L4, T1, T2 eta T3 (eta beraien T2' y T3' barianteak) zuzkidurako bizigune ugari proposatzen dituzte ondoko jarduera integratuetan:

| L2 | L3, L4, T1, T2, T2', T3 y T3' |
|---|---|
| AI 11.1 Neguri | |
| AI 16.1 Alango | |
| AI 16.3 Arkotxa | |
| AI 31.1 Maidagan | |
| AI 36.1 Zubilleta | |
| AI 37.1 Venancios | |
| AI 42.1 Ormaza | |
| AI 24.2 Iturribarri | AI 27.1.2 Trinitarios |
| | AI 27.5 San Nikolas |
| | AI 31.1 Katea |
| | AI Romo |
| | AI Martikoena |

Gaur egun 27.1.2. Trinitarios-erako proposamena, planteatuta dagoen moduan, ez da posible.

L4 hautabidea:

- Kostaldeko parkea lurzoru publikoko lehentasunezko bezala eskuratzea adierazten du (hau da, BMko LZPk gune libre eta ekipamenduetarako kostalde tartea Plentziatik Getxora arte).

T2 hautabidea:

- Portu Zaharra proposatzen du ekipamendu mistoko sistema orokor bezala.

**Indarrean dagoen HAPO (2001)**

**Hezkuntzakoak**

0-3 urteko tartea. Haurtzaindegiak. 39 gela ditu, guztiak pribatuak, gune bakoitzeko eskaintza eta eskaera kontutan hartuta apropos eta nahikotzat jotzen direnak, nahiz eta espezialitate maila altuagoa dagoen Areeta-Erromo eta Andra Mari guneetan.

3-6 urteko tartea. Haur hezkuntza. 29 zentro daude (7 publiko eta 22 pribatu), eskaera teorikoa ez dutena betetzen, nahiz eta eskolarizatze maila %100 den ea, hasieratik ikasleak Getxotik kanpoko ikastetxeetan izena ematen baitute. Eskaintza falta dago Areetan (214 toki) eta Algorta bietan (178 toki), Erromon eta Andra Marin eskainitakoekin osatzen dena.

6-15 taldea. Lehen hezkuntza eta DBH. Eskaintza publikoak ikasleen %48 hartzen du, % 51,2ren aurrean. Ikasleen %37 udalerri kanpoko ikastetxeetan eskolaratzen da. 3-6 taldean bezala, eskaintza superabita dago Andra Mari inguruan (1.671 toki, 73 gela eta 4 ikastetxe), eta defizita Areetan (1.500 toki inguru) neurri baten osatuak Erromon dagoen superabitarekin (523 toki). Zentro publikoek okupatzen duten lurzoru ratioa (17,7 m²/ikasleko) pribatuena baino hobea da (13,1 m²/ikasleko), nahiz eta biek gainditzen duten ikasleko eskatzen den estandarra (12 m²/ikasleko).

15-17 taldea. Batxillerra eta LH. Bi guneetan batuz Areeta, Erromo eta Neguriko eskualde egitura alde batetik (1 gunea), eta Algorta, Andra Mari eta Fadura bestetik (2 gunea), honela banatzen dira zentroak:

| | BATXILLER ZENTROAK | | LH ZENTROAK | |
|---|---|---|---|---|
| | Publikoak | Pribatuak | Publikoak | Pribatuak |
| 1 Gunea | 1 | - | - | 2 |
| 2 Gunea | 5 | 2 | 2 | - |
| GETXO | 6 | 2 | 2 | 2 |

Desoreka nabarmen bat ikusten da eskaintzaren banaketa espazialean: 1 guneak 1.900 tokiko defizita dauka; ordea, 2 guneak 1.500 tokiko superabita dauka.

**Kiroletakoak**

Egoera paradojiko bat ikus daiteke udalerriko kirol ekipamenduari dagokionez: esan daiteke, alde batetik Getxok orokorrean kirol ekipamendu maila oso altua duela, baina instalazio horiek tamaina handi edo ertaineko gune gutxi batzuetan kontzentratuta daude, eta horrek irisgarritasun arazoak sortarazi ditzake batzuetan

Bere tamainaren arabera sailkatzen badira instalazioak, ondokoa daukagu:

- *A motako instalazioak. Txikia (5.000 m² baino gutxiagokoa). Eskualde egiturei zerbitzua emateko eta biztanleri talde guztiek erabili ahal izateko modukoak egunero eta informalki, aisialdirako, osasun erabilerarako edota dibertitzeko (pilotalekuak, gimnasioak, oinarrizko pistak, etab.)*

- *B motako instalazioak. Ertaina (5.000-tik 30.000 m²-ra). Eskualde egitura eta udalerri osoko mailen artean. Kirola era egituratuago batean egiten da, prestakuntza maila bat eskatzen duten jarduerei lotua eta fisikoki gehiago eskatzen dutenak.*
- *C motako instalazioak. handia (30.000 m² baino gehiago). Hiriko instalazio espezializatuak, kirol entrenamendu eta lehiaketetara zuzenduak, aisialdi eta ikuskizunei zuzenduta egonik ere.*

Guztira Getxok ea 100 Ha ditu kirol erabilerarako, nahiz eta Galeako golf zelaia kentzen bada (horrek kalkulua distortsionatzen du), 48,33 Ha zenbatzen dira oraindik, hau da, 6,1 m²/biztanleko.

Bi desoreka ikus daitezke:

- *Desoreka banaketan: instalazio hauek nabarmenki kontzentratuta daude, batez ere tamaina handikoak, udalerriko mendebaldean, Gobela ibaiaren ibarran (Gobelako zelaia, Club Jolaseta, Neguri Langileko zelaiak, Ciudad Deportiva Fadura).*
- *Desoreka tokiko instalazioetan udalerri osoko azalera multzoarekiko. A motatako instalazioentzako lurzoruaren 2 Ha.ko defizit bat antzematen da. Zuzkidura hauen defizita ez duen gune bakarra Andra Mari ingurua da, Probalekuko kirol gunea baitu. Ordea, beste guztiek edo ez dute honelako instalaziorik (Neguri, Algorta 2 Fadura), edo dituztenak ez dira nahiko. Larrien dagoena erlatiboki Areeta da (6.678 m²ko defizita), eta ondoren Algorta biak (5.933 m² defizit Algorta 2-n, eta 5.456 m² Algorta 1-en).*

Getxo udalerria soberan dauka kirol ekipamendu handiek edo izaera bereziko instalazioek okupatutako lurzorua. Ordea, faltan ditu oinarrizko instalazio txikiak, hiri-bilbearen orokorrean hemen eta han daudenak, irekiak eta irisgarriak hurbil bizi den biztanleriak intentsiboki eta egunero erabiltzeko eta, era horretan, errentagarritasun sozial handia emateko.

**Kulturakoak**

Getxok lau Kultura Areto ditu (Areeta, Erromo, Algorta eta Andra Mari), guztiak liburutegiarekin (Andra Mari izan ezik). Horrez gain San Nikolas plazako liburutegi nagusia dago. Azkenik gehitu behar da Getxo Antzokiaren udal kudeaketa.

Inolako zuzkidurarik ez duten Fadura eta Algorta 2 eskualde egiturak kenduta, gainerako ekipamenduak ondo egokitzen dira lurralde banaketaren aldetik tokiko beharretara.

Tokiko mailaz gaineko zuzkidura berezi edo enblematikorik (Auditoriuma, Erakusketa Arego Handia, …) ez dagoela ikus daiteke.

**Osasunekoak**

Osakidetzak bi lurralde eremu bereizten ditu: Areeta (Areeta eta Erromo hartzen duena), ta Algorta (eta udalerri gainerakoa); bakoitzean lehen arretako osasun zentro bat dago. Arreta berezia eta larrialdiak Areetako anbulategian zentralizatzen dira (eraikina lehen arretako osasun zentroarekin partekatzen da).

Badaude ere Gurutze Gorriko bi sorospen postu (Maidagan kalea eta Arriluze kaia-Itsasoko Gurutze Gorria), eta Uribe Kostako osasun mentaleko zentroa.

**Gizarte arreta**

24.750 m² lurzoru okupatzen dute ongizateko ekipamendu ezberdinek, eta hauen artean:

Udal izerakoak:

- *Udal gizarte-zerbitzuak, Foruen kaleko zentroan kokatuak, Familia eta Elkarbizitza, Intsertzio eta kooperazio programak garatuz. Horrez gain, Foruen kaleko zentro berean, Erromoko Nagusien Etxean (500 erabiltzaile inguru dituena egunero), Erromoko apartamentu tutelatuetan (11 apartamentu orain dela gutxi inauguratuak) eta Sagrado Corazón Egoitzan (175 toki dituena).*

Izaera pribatukoak:

- *Hiru jubilatuen elkarte: bi BBK-nak (Areeta eta Algortan, 300 erabiltzaile inguru dituztenak) eta bat parrokiarena (Algorta parrokiarena, 60 erabiltzaile inguru dituena egunero).*
- *Hiru zaharren egoitza (San Esteban, Andra Mari, ta Sta. María de Getxo) 116 toki dituztenak guztira, 9.000 m² inguru hartu beraien lur-zatiek.*

